

ek!

eta kitto!
euskara elkarte

2024ko maiatzak 10 · 1312 zenbakia



EUSKARAK GOLA SARTU DU!

AZKEN EGUNAK

PROGRESIBOEN HILABETEA

2x189 €

MÓ BETAURREKO PROGRESIBOAK

BATZUK EGUZKITAKOAK IZAN DAITEZKE

Kontuzkizatu argirik kanpainaren egozarriak.



MULTIÓPTICAS

943 20 05 22
Bidebarrieta, 2. EIBAR



eskatu hitzordua
WhatsApp bidez

www.multioplicas.com





Eibarko Musika Eskola

**24-25
Ikasturterako**

IZEN EMATEA
Maiatzaren 22tik aurrera

Ezagutu gaitzazu hemen:

facebook.com/eibarkomusikaeskola
instagram.com/eibarkomusikaeskola
youtube.com/@eibarkomusikaeskola
eibar.eus/eu/kultura/udal-eskolak/musika-eskola

musikaeskola@musikaeskola.eibar.eus
943702725



Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



etakitto.eus

Eguazten goizean egin zen ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatzen duen XIV. Euskararen Sozializazio eta Transmisio Mintegia. Ekintza Ipurua futbol zelaiko prentsa aretoan egin zen eta Jaime Altuna, Garazi Sanchez, Garikoitz Goikoetxea, Ibai Sueskun eta Esther Lakasta izan ziren bertan parte hartu zuten hizlariak.



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarteak

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

603 598 285

FAXA 943 20 28 72

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkarta@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekarria

HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Ekhi Belar

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Eskutitzak



Euskara Plana errealtate bihurtuz

2017ko otsailaren 10ean aurkeztu zuen Eibar futbol taldeak Euskara Plan berria. Ba zoriontzekoa da gaur egun Eibar futbol taldeak daraman praktika.

Ostegunetan Ipuruako anexoan, badira 40 bat neskato, 10-12 urtekoak, jo ta su aritzen direnak entrenamentuetan.

Gezurra dirudien arren, Euskera besterik ez da entzuten. Monitore-entrenatzaile guztiak Euskera besterik ez dute erabiltzen. Kontuan izanda gazteen arteko aisialdian zein garrantzitsua den euskeraren erabilera.

Lerro hauetatik eskerrak ematen dizkizuet hori dena posible egiten duzuen guztioi.

Nestor Alberdi

Hortik esanak



Ikasleen arteko erasoek, bullying izendatzen ditugunak, azken ikasturtean %39 egin dute gora. Kontu honetan kaltegieak daude, kaltetuak eta, hirugarrenik, multzo zabala: lekuko isilena. Hor kokatu nahi lituzke edozein gurasok etxeko haurrak, ez kaltegie ez kaltetu, lekuko isila baizik, isilkeria horrek lekukoaren erantzukizuna ezabatuko balu bezala. Errazago ahaztuko du gertatutakoa lekuko isilak, gehiago kostako zaio kaltegiari eta hamaika aldiz gehiago kaltetuari, erasoak pairatu dituenari. Hor dago sugearren arrautza. Esan digute kasu gehienetan, liskarra kaltegieak kaltetuari barkazioa eskatuz bukatzen dela eta kaltetuak barkazio eskaera hori onartzen duenean. Lekuko isilak, lekuko koldarrak ahaztu egiten ditugu.

ARANTXA URRETABIZKAIA, idazlea

Mendiko lasterketak puri-purian badaude ere, niri lasterketa horien sukar hau ez zait gehiegi gustatzen. Mendian noala jendeak atzetik korrika pasatzeak ez dit onik egiten. Atletismo federazioak eta mendikoak hor dabilta borrokan, ea nork bereganatzen duen negozio hau. Ulertzen dut mendian era askotako jarduerak egotea, eta errespetatzen dut mendian korrika ibiltzea, baina izugarria da zer lehiakortasun mailara iritsi garen mendian, eta hori ez zait gustatzen. Ni mendira noanean, gozatzeraz joaten naiz, ez noa inori irabaztera edo ez dakit zer marka apurtzera.

JUANITO OIARZABAL, mendizale eta alpinista

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

PAITTA → Ahatea. Etxekoa edo baserrikoa, paitta edo bilixa; pasekoa eta ehizakoa, ahata. “Hor nun doian paittia dirudixala bere pausuakin”.

1962

Eibarko telefonistak

Sasoi batean, bi telefono aparatuen arteko komunikazioa ezartzeko, eskuzko zentraletan norbait egon behar zen lanean, lotura-lineak egiten. Gaur egun desagertuta dauden lanbideetako bat izan zen telefonistarena, eta horretan aritzeko azterketa batzuk gainditu behar ziren, lan kualifikatua zelako.

PLAZAOLA



Farmaziak

BARIXAKUA 10
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
ZAPATUA 11
EGUNEZ Morgado (San Agustin, 3)
DOMEKA 12
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
ASTELEHENA 13
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
MARTITZENA 14
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
EGUAZTENA 15
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
EGUENA 16
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
BARIXAKUA 17
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)

GAUEZ BETI, 2024an,
Lekunberri (Isasi, 31)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Paca Ruiz Conde**. 89 urte. 2024-04-30.
- **Fidel Gonzalez Garcia**. 87 urte. 2024-05-02.
- **Leonardo Iriarte Narbaiza**. 80 urte. 2024-05-02.
- **Rafael Sanchez Hidalgo**. 68 urte. 2024-05-02.
- **Angel Villagarcia Cano**. 69 urte. 2024-05-03.
- **Gilda Barrenetxea Aranburu**. 100 urte. 2024-05-05.
- **Mariasun Leibar Aizpuru**. 83 urte. 2024-05-05.
- **Alejandra Hernandez Polo**. 88 urte. 2024-05-05.
- **Judith Arriola Muñoz**. 94 urte. 2024-05-06.
- **Leonor Miguel Gonzalez**. 94 urte. 2024-05-07.

Jaiotakoak

- **Jorge Blandino Torrez**. 2024-04-29.
- **Arsalan Benaissa Touijes**. 2024-04-30.



Giro ederra Santa Kurutzeko jaietan

Aurreko barixakuan izan zen Santa Kurutz eguna eta asteburuan jende mordoak elkartu zen ermita inguruan Gorosta-Mandiolakako baserriarrek prestatutako jarduerekin gozatzeko: meza, ume eta helduentzat jolasak, herri-kirolak, musika, dantzak... Aparteko giroa egon zen asteburu osoan.

Urriko lehen egunean egingo den Euskadiko Nagusien II. Topaketa aurkeztu dute

Atzo Europako Batasunaren Eguna izan zela eta, hori aprobetxatu nahi izan zuten Euskadiko Adinekoen Federaziokoek (EuskoFederpem) urriaren lehen egingo den Euskadiko nagusien II. Topaketa Eibarren aurkezteko, eta pertsona nagusiak kontuan hartuko dituen Europaren aldeko aldarria egin zuten adinekoen ordezkariak.

Horrekin batera, kolektiboaren premiak zein eskaerak aintzat har-

tzeko eskatu nahi diete gobernu eta administrazioei. Bestetik, Pertsona Nagusien Nazioarteko Egunean izango den Topaketari buruzko informazio gehiago eguna gerturaten joan ahala ematen joango dira, eta Interneten, federazioaren blogaren bidez (euskofederpen.blogspot.com), antolatzen duten guztiari buruzko informazio eguneratua jakinaraziko dutela aurreratu dute.



Singular Dendak ziurtagiria lortzeko prozesuan sartu da Moapics Design&Store

Udalaren eta Gipuzkoako Merkataritza Federazioaren arteko hitzarmenaren esparruan, hainbat ekintza egin ziren Eibarren Singular Dendak kalitate-bereizgarri berezia duten saltokiak bultzatu eta indartzeko, eta aurten beste denda bat sartu da zigilua lortzeko prozesuan: Moapics. Udalak hasieratik egin du bat Eibarko merkataritza-establezimenduak profesionalizatzea, bereiztea eta posizionatzea helburu duen Singular Dendak ekimenarekin. Eibarren gaur egun 22 establezimendu daude ekimenari atxikituta, kalitateagatik eta eskaintzen duten zerbitzuagatik bereizteko helburua dutelako.





Bidezko Merkataritza Azoka egingo da bihar Untzagan

Egoaizia, Aldatzen eta Proyde-Proega GGKEek batera antolatutako Bidezko Merkataritzaren Munduko Egunaren Azoka hartuko du Untzaga plazak bihar goizean, 10:00etatik 14:30era bitartean. *Bidezko Merkataritzaren Munduko Eguna: Giza eskubideetan, duintasunean eta ingurumenaren babesean arreta jarritz, genero-ikuspegitik* goiburuekin, azokak

bidezko merkataritzaren garrantzia eta emakumeek arlo horretan duten parte-hartzea nabarmentzea nahi du. Horretarako, azokaren inguruan hainbat jarduera osagarri egingo dira. Besteak beste, 11:00etatik aurrera bi tailer eskainiko dituzte, haurrak bidezko merkataritzara gerturatzeko asmoz. Batetik, OsoaCooking-eko Anne Otegik hainbat errezeta prestatuko

ditu, bidezko merkataritzako produktuak erabilia, eta animatzen diren haurrek ere parte hartzeko aukera izango dute. Eta beste tailerra Zorionak Ludotekaren eskutik egingo da: umeek puzzle baten piezak margotuko dituzte eta, hori egiten duten bitartean, bidezko merkataritzaren garrantziaz eta emakumeek esparru horretan betetzen duten funtsezko eginkizunaz ikasten joango dira. Amaieran pieza guztiekin murala osatuko dute. Aipatutako guztiarekin batera, bidezko merkataritzako otarren zozketa, produktuen dastaketa eta denda ere egingo dira.

Estatu sionistaren kontra mobilizatza deitu du Kontseilu Sozialistak

Deba Bailarako Kontseilu Sozialistak eguaztenerako mobilizazioa deitu du, *Israelen eta Mendebaldeko konplizeen aurka* lelopean. Palestinaren aldeko ekimena Nakbaren urteurrenarekin bat antolatuko dute, eta beste herri batzuetan ere mobilizatuko dira, "sionistak palestinarren kontra egiten ari diren sarraskia beste behin salatzeko".

Horrekin batera, Palestinarekin Elkartasuna plataformak maiatzaren 18rako egin duen deialdiarekin bat egiten dute: Iruñean izango da mobilizazioa, *Palestina askatu! Israel borrokatu, desnormalizatu, suntsitu!* lelopean.

Genozidioaren amaiera eta Palestina osoaren deskolonizazioa eskatuko dira mobilizazioak.





Lau urterako Bizikidetza eta Aniztasunaren IV. Plana onartu du Udalbatzak ahobatez

2024-2028 aldirako Bizikidetza eta Aniztasunaren IV. Plana onartu berri du Udalbatzak, eta horri buruzko azalpenak eman zituzten Jon Iraola alkateak eta Sonia Archeli Gizarte Zerbitzuetako batzordeburuak aurreko astean. Esan zuten, planarekin hiri plural eta inklusibo bat lortu nahi dute, “Eibarren bizi diren pertsona guztien integrazioa eta bizikidetza sustatuko dituzten programen bidez”. Esan zuten, atzerrian jaiotako eibartarrak biztanleriaren %14,4 dira gaur egun, eta 89

herrialde ezberdinetatik etorritako pertsonak bizi dira Eibarren”. Bestalde, “administrazio-egoerarekin eta atzerriartasun-legearekin lotutako kontuen inguruan zalantzak argitzeko” Gizartekintza Sailaren barruan dagoen Kultura Aniztasunaren Zerbitzutik, immigrazio-arloan aholkularitza presentzialeko arreta ematen dela nabarmendu zuten.

Zerbitzu hori jasotzeko interesa dutenek hitzordua eska dezakete, Gizartekintza Sailera joanda edo 943708440 telefonora deituz.

San Isidro baseritarren patroia eguna ospatuko da eguaztenean Arraten

Maiatzaren 15ean San Isidro eguna dela eta, Arraten ospatzeko egun osorako egitaraua antolatu dute. Goizean hasiko dira, 11:00etan bertsolari eta trikitilariekin ospatuko den mezan. Ondoren, prozesioa eta aurrekoa egingo dira, Kezka dantza taldearen eskutik. Eguerditik aurrera Debabarreneko produktuen dastaketa eta

herri-kirolen txanda izango da: 12:30ean hasiko da aizkolari txapelketa, harrijasotzaileen saioarekin batera. Baserritarrentzat bazkaria ere antolatu dute: 14:30ean izango da eta, ondoren, bertsolariak eta trikitilariak arituko dira bazkalostea girotzen. Amaitzeko, 17:30etik aurrera idi-demak egingo dira probalekuan.

Sanjuanetan txosnak jartzeko eskaerak maiatzaren 21era arte

Udaleko Kultura Batzordeak jakinarazi duenez, kuadrilei San Juan jaietarako ematen zaizkien dirulaguntzak eskatu daitezke. Ekainaren 3an amaituko da epea, 18:00etan. Ez dago ez adin mugarik, ez kuadrila bakoitzeko kide kopuru mugarik, eta bai kuadrilen izenak, bai kamisetetako esloganak edo mezuak, euskaraz izan behar dira. Horrekin batera, txosnak ipintzeko eskaerak aurkezteko epea ere zabaldu dute: maiatzaren 21era arte egongo da eskaerak aurkezteko aukera. Informazio guztia Udalaren webgunean dago.



Postaz bozkatzeko laguntza Batzokian

Datorren ekainaren 9an Europako Parlamenturako hauteskundeak izango direla eta, posta bidez bozkatu nahi dutenek Batzokira (Ego Gain, 1-1D) gerturatzeke aukera dutela jakinarazi du Eibarko EAJ-PNVk: asteleheneetik eguenera, goizez 11:00etatik 13:00etara, eta arratsaldez 18:00etatik 20:00etara, joan daiteke, eta barixakuetan goizeko ordutegian bakarrik. Joaterik ez dutenek telefonoz deitu dezakete (943120616), edo posta elektronikoz harremanetan jarri (eajpnveibar@gmail.com).



1966an jaiotako Iturburuko gelakideek urteroko bazkaria egin zuten asteburuan

Urtero moduan, aurten ere egunpasa ederra egin dute Ikastolan elkarrekin ibilitako talde honetakoeak. 1966. urtean jaiotakoak dira, eta 1977an Iturburu estreinatu zuten, beste ikasturte batzuetako ikasleekin batera: "Ikastolako ikasketak amaitu eta gero, 44 urte geroago, urtean behin bazkaria egiten jarraitzen dugu". Ibon Ugarteburu, Iñigo Garitagoitia, Jabi Lopez Izagirre, Marisabel Albizu, Lorea Larrea,

Abel Tellaetxe, Kontxi Kerexeta, Aitor Plazaola eta antolatzaile lanetan ibili den Mireia Uranga elkartu ziren zapatuan, Urdaibai inguruan: "Lagan geratu eta Mireia Urangaren Ereñoko 1582ko baserrira joan ginen, hamaiketako egitera. Gero Nabarnizen egon ginen, izen bereko jatetxean bazkaltzen". Arratsaldean Santimamiñe inguruan ibili ziren eta, amaitzeko, Eibarren pasatu zuten zapatu gaua.

"Hilekoa(k)" erakusketaren aurkezpena egingo da gaur arratsaldean Andretxean

Gaur 18:00etan aurkeztuko dute "Hilekoa(k)", Ainhoa Aldazabal Gallastegiren erakusketa, Andretxean. Egilearen berbetan, "arte kontsideratu ez diren emakumeen sorkuntzei lekua egin diegu eta, horrela, artelan bihurtu". Skolastikako kideak hilekoaren inguruan egindako lanak ekainaren 14ra arte ongo dira ikusgai.



Domeka honetako inoizko Herri Urratsik handiena izango da

Orain arteko Herri Urratsik handiena izango da domekakoa (maiatzak 12), bi gune gehiago eta eszena berri bat izango direlako aurtengoan. Senpereko lakuan biltzen den dirua Beskoitzen (Lapurdi) 10 urtez barrakoietan izan diren haurrak hartzeko ikastola berri bat egiteko erabiliko da. Besteak beste, Esne Beltza, Neomak, Bele, Nogen eta Eire taldeen musikaz gozatu ahal da. Aurrekoez gain, aintziran zehar joaldunak, Elektropottote, Elektroxorongo, Gaitistan etabar izango dira. Eta euskaraz bizi nahi dugula aldarrikatuko dute lau haizetara, ortzadar erraldoi bat margotuz aintziran, Ortzadarraren izango baita aurtengo egunaren lema.



Hasi da udako igeriketa kurtsoetarako izen-ematea

Maiatzaren 20ra arte egongo da zabalik udako igeriketa ikastarotaren izena emateko epea. Zozketan parte hartzeko formularioa udalaren webgunean edo ekimenaren kartelean dagoen QR kodearen bidez bete daiteke, edo bestela, Ipu ruako kiroldegiko atezaindegira joanda. Informazio gehiago www.eibarkirola.eus webgunean, albisteen atalean.



Ekitaldiko
BIDEOA ikusteko



Euskararen sozializazioa eta transmisioa zelai erdian

Euskararen Sozializazio eta Transmisio Mintegiaren XIV. edizioa egin da aste honetan, zehazki, eguazten goizean. Lehen aldiz Ipurua futbol zelaiako prentsa aretoan egin da ekitaldia, eta Jaime Altuna, Garazi Sanchez, Garikoitz Goikoetxea, Ibai Sueskun eta Esther Lakasta izan dira bertan parte hartu duten hizlariak. Oso labor bada ere, adituek esandako ideia nagusiak batu ditugu hurrengo orrialdeetan.

...eta kitto! Euskara Elkartek eskerrak eman nahi dizkiete bertara hurbildutakoei eta Eibarren AKEBAI, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzari ere bai, ekitaldia urtero antolatu ahal izateko ematen duten babesagatik. Berezi eskertu nahi dute antolatzaileek S.D. Eibarren prestutasuna eta erakutsitako gogoia Mintegiaren garapena egokia izateko.



Jaime Altuna, EHUko irakasle eta ikerlaria

“Hizkuntzaren funanbulistak. Adin, genero eta hizkuntzaren arteko orekak eta desorekak”

"Hizkuntzaren funanbulistak" izena jarri zion Altunak iaz aurkeztu zuen tesiari, bere ikerketan nerabeak horrela ikusi dituelako, "sokaren gainean orekari eutsi nahian". Azaldu duenez, "eskatzen diegu euskara jakitea, eta gainera ondo egitea; esaten diegu erabili behar dutela, eta gainera bertako hizkera egin behar dutela. Oreka hori mantentzen saiatzen dira eta, gainera, sarerik gabe ari dira. Sarea eskolaren bitartez eskaini diegu, baina ez da nahikoa, aisiaren bitartez eskaini beharko genieke", dio. Aisiaren eremu ez formalean planifikazio sendoa egin beharra daukagula aldarrikatu du, eta lehenengo ondo definitu eremu guztiak.

Urteetan gazte, haur eta nerabeekin ibili da hizkuntza praktikak aztertzen hizkuntzaren antropologiaren ikuspegitik. Eskola eta famuliatik at dagoen esparruan egin du bere lana, zehazki, kirol arloko ariketa fisikoa dagoen eremuetan, baita dantza taldeetan ere. Esan duenez, "eremu ez formalean euskararen presentzia askoz ere txikiagoa da beste eremuetan baino; eskolatik kanpo zaila zaie euskara topatzea eta euskara erabiltzea. Hau oso lotuta dago gazte kulturarekin. Gaur egun gazteak erabat txertatuta eta eroso daude gazte kultura globalean. Erreferentzia kulturalak denengana heltzen dira eta hizkuntza aldetik denengan dute eragina".

Urteetako behaketa, elkarrizketa eta azterlanen ondoren, irakurketa batera heldu garelako dio: "Nerabe eta gazteak euskalduntzen ari gara, baina ez dute erabiltzen. Nik uste dudana da lotura duela gizartean nerabearoa eraikitzeke moduarekin. Nerabearoak, kategoria mo-



duan, ehun urte pasatxo ditu eta kategoria problematiko gisa eraiki da. Nerabeek bere egin dituzte diskurtso horiek. Eta, modu batean, performatu egiten dituzte. Haiengandik espero diren rolak jokatzeko dituzte, eta batzuetan, oso modu esajeratuan: kontra egin behar dute, transgresioa... Hizkuntzaren gaian erdarakadak kontzienteki sartzen dituztela diote gazteek".

Hizkuntza *normala* hizkuntza nahasia dela esaten dute gazteek. Euskara eta gaztelania nagusiki, eta ingelesa beste maila batean. Hizkeran hainbat faktorek eragiten du: familia, herria, parte hartzen duten taldeak... Hizkuntza bat aukeratu eta hori bakarrik erabiltzeak marka ideologikoa ematen du. Beraz, hautua da ez hautatzea. Bada helduei esateko modu bat: "Zuek argi duzuen arte ez eskatu guri erabakitzeke". Hor badago protesta edo kritikaren elementua Altunaren ustez.

"Nerabeek hizkuntza ideologia desberdinak dituzte euren diskurtsoetan. Euskara zeozer positibo eta desiragarri bezala jaso dute, eta bat egiten dute ideologia horrekin, baina indiferentzia puntu bat daukate. Bestalde, marko liberalarekin lotutako diskurtsoak daude. Hizkuntzen merkatu librearen ideia. Bakoitzak nahi duena egingo dela esaten dute. Guzti honen inguruan gehiago hausnartu beharko genuke", dio Altunak.



Garazi Sanchez, Ikusiker-eko ikerlaria

“Gazteen online kontsumoak”

Ikusiker Ikus-entzunezkoen Behategiak gazteek ikus-entzunezkoak ikusteko eta Informazio eta Komunikazio Teknologia erabiltzeko ohiturak, moduak eta joerak aztertzen ditu. Bertan aritzen da ikerlari moduan Garazi Sanchez EHUko irakaslea. 11 eta 23 urte arteko ikasleek aurreko urtean egin duten kontsumoari buruzko datuak dira Mintegira ekarri dituenak.

Ikerketaren ondorio nagusiak hauek direla dio Sanchezek: "Sare sozialak gazteen eremu natural bihurtu dira entretenitzeko, komunikatzeko eta baita informatuta egoteko ere. Irudietan oinarritutako hizkuntzak aurrerarik gabeko garrantzia hartu du gizarte garaikidean. Instagram, TikTok eta YouTube bezalako plataformek ikusizko kultura katapultatu dute giza adierazpenaren abangoardian. Sare sozialek eskaintzen duten eskuragarritasunari eta aniztasunari esker, gazteek, kontsumitzaileak izateaz gain, paper aktiboa betetzen dute paisaia digital zabalean. Erabiltzaile oparoak dira gazteak... sortzaile apalagoak".

Gainera, telefono mugikorra gazteen ikus-jardueraren epizentroa dela azpimarratu du eta, beste alde batetik,



euskararen ezagutza eta online erabileraren arteko aldea handia dela dio. "Gero eta eduki gehiago daude euskaraz; baina, ez baditugu plataformetan eta sare sozialetan kolokatzen ez dituzte kontsumituko. Hau oso inportantea da", dio.

Tik-Tok da gehien erabiltzen den sare soziala DBHkoen artean. Unibertsitarioen artean, aldiz, Instagram da nagusi. YouTube ere kontsumo handia du gazteen artean, "batez ere musika entzuteko eta youtuberrak jarraitzeko. Hala ere, musika entzuteko aplikazio erabiliena Spotify da". WhatsApp indarra galdu du (Instagram erabiltzen dute gero eta gehiago mezuak trukatzeko). Streaming plataformak oso hedatuak daude. Ondorioz, telebistaren gainbehera etorri da.

Garikoitz Goikoetxea, Tolosako euskara teknikaria

“Euskararen geografia berria”

Soziolinguistika Klusterrak antolatzen dituen Txillardegi-Hausnartu Soziolinguistika Sarietan bigarren saria irabazi zuen Garikoitz Goikoetxea euskara teknikariak "Euskararen geografia berria, hainbat mapa esanguratsutan" lanarekin, eta horrekin etorri da Mintegira. Mapa horietan azaltzen denez, hiriguneek garrantzi berezia dute, gero eta handiagoa: euskaldunen erdia baino gehiago 23 udalerritan bizi da. Baina udalerririk horietako askotan, euskaldunen kopurua handia izan arren, dentsitatea apala da: euskaldunen %62 bizi dira euskaldunak gutxiengoa diren herrietan.

Ezagutzaren bilakaeran, dentsitate apalagoak gora egin dute, batik bat eskolaren bidez (Lapurdi salbuespen; Nafarroa hegoaldean mugatuago); dentsitate handiak behera egin dute, batez ere migrazioen ondorioz. Norantz doa ezagutzaren geografia? 2-55 urteko biztanleria kontuan hartuta, joerak hauek dira: EA Eren alde handitzen doa, eta Bizkaia-Araba pisua irabazten ari dira. Bestalde, ezagutza baino gehiago ari da aurrera



egiten ulermena: euskara ulertzen dutenak gehiengoa dira eremu askotan. Beraz, nola atera horri betekina?

Erabilera kopuruetan, ehuneko apalagoak eremuek ere pisu adierazgarria dute (%40). Donostiaren pisua esanguratsua da. Aldatzen ari da erabilera-moldea: testuinguru nahasietan gero eta gehiago.

Hizkuntza plangintzak eta politikak egiteko orduan testuinguruak gehiago hartu beharko liriateke kontuan, Gariren ustez: "Ikuspegi nazionala behar da, derrihor, baina eraginkortasunak eremukatzea eskatzen du. Tokiko ikuspegi behar da, eskualde edo zonalde bakoitzak dituen ezaugarrien arabera plangintzak garatu. Homogeneizatzeko joera hau euskararen kaltetan izan ez dadin".

Ibai Sueskun, Errigora eta Agerraldiako kidea

“Agerraldia, euskara plazara”

Nafarroa hegoaldekoak propio diren produktua Euskal Herriko plazetara eramateko, elikadura burujabetza babesteko eta eremu horretan euskalgintzari ekarpena egiteko asmoz sortu zen Errigora orain dela 11 urte. “Euskarari puzka” lehendabiziko kanpainatik asko hazi da egitasmoa: poliki-poliki elikadura burujabetzaren, auzolanaren eta euskararen alde egin nahi duen jendearen sarea indartuz. Euskaltegiatik eta ikastoletatik kanpo euskaldunek nekez dutela euskaraz aritzeko aukerarik esan du Sueskunek, eta behar horri erantzuteko sortu zutela Agerraldia, duela bost urte. Hiru helburu nagusi ditu Agerraldiak: euskararen ezagutza zabaltzea, erabilera eta bizitzeko aukerak handitzea eta euskararen aldeko jarrerak indartzea eta sustatzea. Herritarrek saretzea, euren artean ezagutzea da Agerraldiaren aportazioetako bat. “Bertso eskolak, kirol taldeak, euskararen egunak, 21 jolasteka (250 umeren parte-hartzearekin), plakak elebidun jartzeko ekimena, euskara planak (Errigorako ekoizle guztiek euskara plana dute)...



Pauso txikiak eginez aurrera goaz. Ekintza iraukorak sartu nahi ditugu agendan”, dio.

Eragileak eta euskalzale guztiak Agerraldiaren partaide sentitzea oso inportantea da bere ustez: “Haien beharra eta kezak kontuan hartu nahi ditugu. Oztoto guztien gainetik, kristona da jendearen gogo eta determinazioa euskaraz bizitzeko. Euskalgintza klasikotik haratago praktikotasuna bilatzen dugu, eta transbertsalki lan egitea. Bide handia daukagu egiteko, baina gero eta jende gehiagorekin egiten ari gara”.

Esther Lakasta, Dindaia Fundazioko teknikaria

“Aisialdia eta euskara, hori gara gu”

Dindaia Fundazioa 2004 urtean sortu zen, hezkuntza arloan eta euskararen normalizazio arloan ziharduten zenbait lagunek euskarazko aisialdiko eskaintzaren beharra ikusi zutenean. Rikardo Ederrak erronkari heldu eta Dindaia Fundazioa sortzeko bideari ekin zion. Iruñerri inguruan hasi ziren, baina zabaltzen joan dira Nafarroa osora. Nafarroan euskararen presentzia eta erabilera bizitzaren esparru guztietan bermatuta egon beharko litzatekeela diote. Zentzu horretan, Dindaia Fundazioak euskararen normalizazioan lagundu nahi du, haur eta gazteei aisialdiaren arloan euskaraz bizitzeko aukerak eskainiz.

Euskararen erabilera sustatzeko aisialdiko zerbitzu desberdinak eskaintzen dituzte: ikastetxean eskolaz kanpoko ekintzak eta jolas orduen dinamizazioak; herri eta auzoetan kanpaldi irekiak eta era askotako tailerak; familiei zuzendutako jolas eta kanten ikastaroak, Parkean Euskaraz saioen dinamizazioa; formazioa aisialdiko begiraleentzat, Kilika Nafarroako Gobernuarekin hitzartutako onlineko egitasmoa, Mintza jolasak



(A eredu ikasleentzat errefortzua)...

Esther Lakastak azaldu duen moduan, Dindaiaren oinarriak talde lana eta elkarlana dira; “beste eragile eta erakunde batzuekin egiten dugun elkarlana ezinbestekoa da euskararen erabileran eragiteko”, dio. Fundazioak egokitzeko ahalmen handia izan du eta belaunaldien arteko transmisioa ere azpimarratu nahi izan du: “Gure ikasle izandako batzuk orain begirale dira, eta asko bihurtu dira guraso. Gauzak gogoz eta ilusioz egiten ditugunez, gogoko tokian aldaparik ez”. 15.600 lagun inguruk parte hartu izan dute Dindaia Fundazioaren proiektuetan, eta dagoeneko 1.700 langile pasa dira bertatik.

Latia Emon gizartea eraldatzeko

BIDEOA



Eibarko Oinarrizko Lanbide Heziketako Udal Institutuak (EOLHUI) eta Debegesak Latia Emon ekimena jarri zuten martxan Ingurumenaren Nazioarteko Egunaren harira. Kutxa Fundazioak eta Arantzazulabek sustatutako Hitzetik Ekintzetara programaren izenburuari zorrotz jarraituz, ikasleek sormena, ekonomia zirkularra eta gizarteratzea batzen dituen ekimena gauzatu dute herritar guztion parte-hartzearekin.

Hilabetea baino gutxiago geratzen da Ingurumenaren Nazioarteko Egunerako, ekainaren 5ean ospatzen baita. Egun berezia izango da EOLHUIko ikasleentzat, mailtasun eta inplikazio handiz azken hilabetearen prestatzen diharduten ekimena aurkeztuko baitute Untzagan.

Latia Emon deitu diote egitasmoari eta, Debegesako Enplegu eta Gizarte Berrikuntza ataleko Asmae Ourdik azaldu digunez, “ekimen parte-hartzaile eta komunitarioa da”. “Komunitatea eraldatu nahi dugu eta, era hitzetan, baita pertsonak ere”, Amaia Osoro EOLHUIko arduradun pedagogikoaren berbetan. Izan ere, bere hitzetan, parte-hartzaileek hezkuntza-balio ugari jasotzen dituzte ekimen horren bitartez: “Ekitatea eta justizia soziala, besteak beste”. Beraientzat hori oso garrantzitsua da, “oso ikasle gazteak izanik, bizi-esperientzia oso gogorak izan dituztelako. Beraz, ekimen



honen bitartez euren potentziala agerian lagatzen ari gara, potentziala badutelako, eurek ez badute ere eurengan sinesten”.

Guztira, EOLHUIko 27 ikaslek dihardute ekimenean parte hartzen eta, besteak beste, “hizkuntza bazterkeriatik datozen ikasleak dira”, Ourdik azaldu digunez. “Motxila edo karga asko duten ikasleak dira. Etxetik ekarririk zailtasunak dituzte, baita sozialak ere, estereotipoak... Gizartearen izkinetan ibiltzen dira beti, inoiz ez daude erdialdean, eta ekimen honekin erdialdean jarri nahi genituen”, gehitzen du.

Osororen berbetan, gainera, “gazte hauen ingurunean drogen edo bestelakoen bitartez bilatzen diote irtenbidea jasaten duten egoera mingarriari. Beraz, talentua dutela, gertatu zaienaren eta bizi izan dutenaren errua ez dutela esatean, eta bizitzeko beste aukera bat dutela erakustean, askotan ez dute sinesten”.

Enpresa moduan antolatuta

Estatu mailan egin diren ‘Cada lata cuenta’ eta ‘Pixelata’ egitasmoak oinarri hartuta, eta pandemia aurretik Azitaingo ikasleek latekin egindako muraletik abiatuz, latekin horma-irudiak egitea pentsatu zuten. “Egitasmoa hemendik ateratzea nahi izan dugu eta ikasleek aktibazio-rola edukitzea”, aipatu digu Ourdik, “gure asmoa Azitaingo ikasleen ahalduntzea sustatzea baita”. Horrela, ikasleak enpresa batetan bezala antolatu dira ekin-tza aurrera eramateko, ardurak banatuz. “Hornikuntzak behar izan ditugu (paleak, latak...), egurrekin



Debegesako Asmae Ourdi eta Azitaingo EOLHUIko Amaia Osoro. EKHI BELAR

>>> EOLHUIk eta Debegesak ikasleen sormena, ekonomia zirkularra eta gizarteratzea batzen dituen proiektua abiatu dute

horma-irudien markoak egin eta banatu ditugu, enpresa eta bestelako erakundeekin hartu-emana eduki behar izan dugu, eta abar”, zehaztu digu Osorok.

Ourdik esan bezala, “ikasle hauen ahotsa inoiz ez da entzuna izan eta orain kanpora atera da, ikasle izan ziren ikastetxeetara itzuli dira proiektua azaltzera... Beldurrak eragindako lotsarekin hasi zuten proiektua, serio hartuko edo onartuko ez zituztelakoan, eta proiektua handitzen



Mota honetako muralak egingo dituzte Latia Emon ekimeneko parte-hartzaileek. EKHI BELAR

eta izan duen onarpena gehitzen joan den neurrian, egiten ari zirena-ren garrantziaz jabetzen joan dira”.

Besteak beste, Eibar BHI Mogel, Eibar BHI Jardinieta, Kalexka, Zumaitik, AGIFES, Azitain, San Andres Egoitza, Armeria Eskola Elkartea, Urkizu Eskola eta Aubi-xak hartzen dihardute parte bertan, hainbat eta hainbat herritarrez gain.

Jasangarritasuna eta ekonomia zirkularra

Azken helburua birziklatutako latekin horma-irudiak osatzea denez, parte-hartzaileek latak batu behar izan dituzte, horma-irudiak diseinatu eta, gero, horiek gauzatu. Hori guztia, gainera, jasangarritasuna sustatuz egin nahi izan dute, “toki guztietan ikusten ditugun latei beste erabilera bat eman ez”, gehitzen du Osorok, eta ekonomia zirkularra da proiektuaren beste zutabeetako bat.

Edukiontzia Azitaingo udal institutuko LHko eta IHPko ikasleek sortu dituzte eta herriko zenbait

>>> Latekin horma-irudiak dihardute prestatzen herriko hainbat erakundek

>>> Horma-irudiak erakusteko ekintza berezia egingo dute ekainaren 5ean, Untzaga plazan

gune estrategikotan daude kokatuta. Oraindik laten beharra dute-nez, herritarrei dei egiten diete latak emateko, eta gero, jasangarritasunaren eta ekonomia zirkularren bidez, edukiontziei beste erabilera bat emateko asmoa dute.

Erakusketa ekainaren 5ean

Horma-irudiak ekainaren 5ean emango dituzte argitara Untzaga egingo den ekintza berezian eta, oraindik ere latak jasotzen jarraituko duten arren, egun hauetan hasiko dira horma-irudiak sortzen.

Untzagako ekimenean zuzenean egitasmo honetan parte hartu ez duten EOLHUIko ikasleak ere egongo dira, adibidez sukaldaritza eta jate-txe arlokoak mokadutxoak eskaintzen, eta Azitaingo egoitzan egiten dena herriari ikusarazteko balio izatea espero dute.

Gero, horma-irudiak Untzagako Jubilatutako egongo dira ikusgai eta sortzaile bakoitzak bere egoitzan jarriko du berak sortutakoa.

Izena eman daiteke honezkero Euskal Jaiko zenbait ekitalditan

Ohikoari jarraituz, maiatzaren azken asteburua hartuko du berriro ere Euskal Jaia. Oraingoan, gainera, Klub Deportiboaren mendeurrenekoa izanik, inoiz baino parte-hartze handiagoa izango duela nabarmendu daiteke dagoeneko, batez ere egitarauko ekitaldi batzuei dagokienez.

Bestalde, badira tartean zapatuko kantu-afaria eta domekako herri-afaria, antolatzaileen mesedetan batez ere, lehenbailehen izena eman eta tiketak erostea komeni dena. Batez ere, kopuruaren arabera “gauzak antolatzen joateko eta zenbaterainoko eskaerak egin behar diren jakiteko”. Afariaren catering-a Harakintzaren eskutik izango da eta prezioa 20 eta 25 eurokoa izango da: lehenengoa “ikasle eta langabetuentzat”, eta bigarrena “langile eta dirua dutenentzat”. Menua ere aurreratu digute: iberikoak, entsaladilla errusiara, txahal sukalkia, edariak, pantxi-

neta eta kafea. Bazkaria, bestalde, Biziminak prestatuko du eta prezioa 5 euro merkeagoa izango da kasu bietan, hau da, 15 eta 20 eurokoa. Egun horretako menuan entsalada, paella, edariak, postrea eta kafea sartuko dira.

Sormen Tallerra

Euskal Jaiaren barruan ere, Arrate Kultur Elkartearen eskutik zapatu goizean izango Sormen Tallerra, ohiko Azokarekin bat eginez. “Euskal Jaia koloretan: instalazio kolektiboa” izeneko ekimen horretan, “aniztasuna, ospakizuna eta Euskal Jaiarekiko harremana jaso



Kantu-afarirako eta herri-bazkarirako tiketak erosi daitezke Klub Deportiboan

nahi duen sormen lan kolektiboa osatzera goaz. Zuk aukeratutako bizi-pen+data+kolore baten bidez, Pantone itxurako banderatoxak sortu eta Klub Deportiboaren inguruan zintzilikatuko ditugu maiatzaren 25ean, Adarabar-en laguntzaz”. Argazki edo irudirik bidali nahi izanez gero: arratekultu@gmail.com edo 638 284 912 (whatsapp edo telegram bidez).

Klub Deportiboko Kultura batzordeak antolatutako Euskal Jaiko ekitaldi nagusiak hilaren 24tik 26ra arteko hiru egunetan bilduko dituzte. Barixakuan Kalia Jolasian, kale-animazioa eta Kilimak eta Mugi Panderoaren kontzertuak izango dira. Zapatuan Azoka, pala txapelketa, Sormen Tallerra, herri-kirolak, txistupoteoa, dantzaldia, kantu-poteoa, kantu-afaria eta erromeria. Eta domekan Euskal Jaiko kalejira, dantza jaialdia, herri-bazkaria, erromeria eta larraintz-dantza.



Euskal Jaiko azken egunean, domekan, dantza jaialdia egingo dute Untzagan.

Dia das Letras Galegas-ek Urkizu jai-giroaz jantziko du asteburuan

As Burgas Galiziako Kultur Etxea 1984an sortu zen, hau da, orain dela 40 urte, eta ordutik urtero maiatzean "Dia das Letras"-en inguruko jaiak ospatzen ditu gurean. Galiziatik Eibarrera lanera etorritako jendearekin eman zituen lehenengo pausoak. Hori bai, orduko hartan euretako batek, Antonio Alonsok, eta arrantzale euskaldunen seme bezala Ferrolen urte asko eman zituen Josu Arkotxak (...eta kitto!-ren hasieran ere egon zen bera) sortu zuten As Burgas Etxea.

Ordutik Galiziako sustraiei eusten ahalegindu da Kultur Etxea, lur hartako idiosinkrasia, kultura eta ohiturak bazkideen eta euren oinordekoen artean zabaltzearekin batera, beste eibartarroi ere eskaintzeko gogoz. Horretarako zenbait ekimen antolatzen dituzte urtean zehar, garrantzitsuenak maiatzaren erdialdekoak badira ere; baina gure Gaztañerarean pareko Magostoak ez dira faltan izaten urteroko hitzorduan, eta ezta enpanadaren festa ere. Errege Egunaren bueltan hor izaten da umeentzat prestatutako marrazki lehiaketa... eta dantzan egin eta musika entzuteko tarte bat

baino gehiago aurkitzen dute, batez ere hainbat eginkizunetan parte hartzen duen Os Galaicos taldeari esker.

Raquel Mosquera da elkarteko gaur egungo presidentea. Sei bat hilabete daramatza karguan, bere aurretik karguan hamarkada bat egin duen Juan Jose Floresen lekukoa hartu ondoren. Berak esan digunez, Castelao idazle eta intelektualaren figura dute jaietako ardatz: "Maiatzaren bigarren edo hirugarren asteburuan jaiak egiteko, maiatzaren 17a dugu ardatz: data horretatik gertuen dagoena hartzen dugu". Jaiekin batera, urtero kale-ratzen duten liburuxka oraindik ez dute esku artean, baina "inprentatik berehala jasotzea" espero dute.

Jaietako antolakuntzan 25 bat lagunek hartzen dute parte zuzenean, "zuzendaritzako jendeaz aparte, ahal ditugun inguruko guztiak bilduz, etxekoekin hasita". Ahaztu barik aurreko zapatuan jaietako hasiera eman zien gaita-poteoan jardun zuten Os Galaicos taldekoen parte-hartzea: "Hamabost bat izango dira hor", dio presidente berriak. Aurrekoan Laudioko Zentrok Gaiten Taldea izan zuten lagun.



Juan Floresek hamar urte egin ditu presidente karguan, lekukoa Raquel Mosquerari pasatzeko.





Galiziako dantza eta musika ekitaldiek presentzia berezia izaten dute Urkizuk hartzen duen jai hauetako egitarauan.

Galiziako produktuak

Gaur arratsaldeko 19:00etan zabalduko dute ofizialki jai-batzordearen taberna, eta bertan salgai izango dira Galiziatik ekarritako hainbat produktu. "Galiziako olagarroa eta enpanadarekin batera, tetilla gazta, Santiago tarta eta lakoia izango dira, betiko lez", diosku Mosquerak. Jai hauei ikutu berezia ematen dion olagarroari buruz, "40 urtetan, kale egin barrik, Eibarren familia duten galiziarrek datoz".

Egitarauan berritasunik sartzeko asmoa ez dute baztertzen. "Aurten, esaterako, DJ-a izango dugu domeka arratsaldean. Eta orkestri dagokionez, gustatuko litzaiguke Panorama izenekoa ekartzea, baina gure aurrekontutik ihes egiten digu; eta tokirik ere ez dugu, orkestra horrek lau trailer mugitzen baititu". Bestalde, orain dela hiru urte mahai-jokoak ekartzeko hasi ziren, eta pozik daude Odisea elkartekoekin: "Gainera, herrikoak dira. Hori gutxi balitz, eurak ere pozik daude hemen izatearekin".

"Eibarren familia duten galiziarrek datoz urtero olagarroarekin, kalerik egin gabe"

Gaur 19:30ean gaita-poteoa hasiko da, Casa de Galicia gaita taldearen eta Eibarko trikitilarien eskutik. Eta, 22:00etatik aurrera, Compostela orkestrak girotuko du gaua, tartetxo bat eginez gauerdiko queimadari.

Biharko egitaraua goizetik hasiko da: 11:30ean gazteenentzako chaves tiraldia izango da, 12:00etan herri-kirolen txanda helduko da, eta 13:00etik aurrera igel-txapelketak jokatuko dira, lehenengo umeena eta ondoren



Domekan izango den DJ "Primo Bayo" aurtengo berritasunetako bat da.

helduena. 18:30ean Galiziako dantzak eta musika izango dira protagonista. Gauean, 22:30etik aurrera, Lugoko Stereo orkestrak ipiniko du martxa.

Domekara helduta, 12:00etan Galiziako dantza eta musikaren txanda izango da, 14:00etan lore-eskaintza egingo zaio Caste-laori, 15:00etan luntxa egingo dute, 16:30ean Odisearen jokoak hasiko dira eta, jaiekin amaitzeko, DJ "Primo Bayo" izango da, 18:00etan.

Towers Valenciagako irabazleak bost maillot bereganatu zituen

Nagusitasun handia erakutsi zuen Caja Rural taldeak aurreko domekan jokaturako Espainiako Kopako proba entzutetsuan. Talde bezala erakutsitako nagusitasun hori islatu zen baita Lucas Joseph Towers irabazlearen kasuan ere, berak jantzi baitzituen sailkapen nagusia, mendia, tarteko helmugak, 23 urte-tik onena eta saiatuenaren maillot guztiak. Aurrekoa gutxi balitz, Jan Castellon taldekidea helmugaratu zen bere atzetik, bigarren postuan.

26 taldeetako 182 txirrindulari abiatu ziren Valenciaga Memorialaren 53. edizio horretan, eta gogotik ekin zioten lasterketari, lehenengo ordubetea 44 kilometro osatzeraino. Itziarko igoeran bederatzi txirrindularik osatutako taldetxo aurreratu zen, Meagas, Elgeta eta Areitiotik horrela pasatzeko, baina Ixuan Towers ingelesak egindako



erasoak erabakiko zuen proba, San Migueletik ere bera pasatu zelako ihes eginda. T. Etxebarriako helmugan Castellon taldekidea 25 segundora sartu zen, eta Brogar-Raliale taldeko Alvaro Sagrado 34ra iritsi zen.

Bestelako sariei dagokienez, Fabrizio Crozzolo nagusitu zen sprint

berezietan, Laboral-kutzako Iker Trigo izan zen euskaldun onena eta Finisher-eko Haimar Etxeberria gipuzkoar onena. 118 txirrindularik amaitu zuten proba. Telmo Senperena izan zen Eibar taldeko ordezkari onena, 70. postuan, eta Xabat Mansok eta Unax Errastik ere amaitu zuten lasterketa.

Altuna eta Dario finalerdietan izateko azken txartelaren bila



Domekan Astelenak buruz-buruko txapelketa nagusiko ligaxkako azken jardunaldiko neurketa erabakigarria hartuko du jaialdiko partidu nagusian. Lehiaketa horretako finalerdi batean Laso eta Zabala izango diren bezala, bestean Artola zain dago zeinen aurka jokatu duen jakiteko. Aurkaria Altuna III eta

Dario Aspeko ordezkarien artetik aterako da (atzo aukeratu zituzten pilotak). Jaialdiko hasierako partiduan, Ezkurdia-Martija eta Pello Etxeberria-Tolosa bikoteek jardungo dute, nor baino nor. Amaitzeko, berriz, Exposito-Gabirondo eta Mata-Eskuza bikoteak ahaleginduko dira norgehogoka euren alde egiten.

Ate irekien lau jardunaldi Urbaten eskutik

Bi martitzen eta bi eguen eskainiko dituzte Urbat waterpolo klubekoek kirol horretan interesa dutenentzako. Ate irekien jardunaldi horiek hilaren 21, 23, 28 eta 30ean izango dira, arratsaldeko 17:00etatik 18:00ak arte. "Igeri egiten jakitea beharrezkoa" dela jakinarazi dute

eta izena eibarko.urbat.ike@gmail.com helbidean eman daiteke. **Argazkian**, WP Donostiko entrenatzailearekin, Gipuzkoako kadete selekzioarekin jokatu zuen Urbateko boskotea: Ander Sola, Telmo Málaga, Peio Bergaretxe, Eujen Kortabarria eta Jokin Laskurain.



Eibartarrak-ek Gorengo Mailara igo du bi jardunaldiren faltan

Erregional 1. Mailan hamar denboraldi egin ondoren, Eibartarrak-eko talde nagusiak Gorengo Mailara bueltatzea lortu zuen aurreko asteburuan. Egindako denboraldi ezinhobean ondo merezitako saria da lorpen hori Iñaki Osa entrentzaileak gidatutako taldearentzat; eta bikain ospatu zuten jokalariek zein jarraitzaile guztiek Unben bertan partiduen amaieran hasi eta herriko kaleetatik ondoren.

Lehenengo fasean ere garaipen bat bestearen atzetik lotzen joan ziren eta, multzoko lider amaitu eta gero, bide beretik jarraitu izan dute Eibartarrak-ekoek azken fasean. Guztira, orain arte, 21 garaipen, berdinketa bakarra eta lau porrot izan dituzte denboraldian. Eta, Behobiari 3-0 irabazita



(Aketx Fernandezek bi gol sartu zituen eta Markel Arrietak hirugarrena), Idiazabal bigarrenari zazpi puntu ateratzen diotenez, liga amaitzeko bi jardunaldiren faltan multzoko lidergoa ziurtatu

dute, igoarekin batera. Behin liga amaituta, beste multzoko irabazlearen kontra (Lazkao eta Amara Berri dira lehian) jokatuko dute Gipuzkoako Erregional 1. Mailako txapelaren bila.

Paula Calvok beste lau domina ekarri zituen Tarbeseko nazioartekotik ere

Eibar Igerixaneko ordezkariak bere maila erakusten jarraitzen du, jokatzen dituen ia proba guztietan lehenengoa izateko. Aurreko asteburuan Tarbeseko Nautiques nazioartekoaren 31. edizioan, Gipuzkoako Federazioarekin hartu zuen parte Paula Calvok, guztira 450 igerilariren parte-hartzea izan zuen lehiaketan. Eibar Igerixanekoak lau proba egin zituen, laurak irabazi eta finalerako txartela eskuratuz; hori gutxi balitz, lauretan (bizkar erako 100 eta 200ekoak, eta 400 eta 800 libretan) domina irabazi zuen. Horrez gain, Calvok Europarako minimoa lortu zuen bizkarreko bi probetan.

Klubaren eguna

Hori ospatuko dute Eibar Igerixanekoek domekan: goizeko 10:00etan



Untzagan zapiak banatuko dituzte eta, mendi-bueltatxo egin ondoren, lunch-a eta jolasen tarte izango da, 14:00etan Untzagan berriro taldeko argazkia ateratzeko. Igerilari, igerilari-ohi eta euren familiakoekin bizitzeko egun ezin proposagoa.

Herriko xakelariak dotore Gipuzkoako partida azkarren txapelketan

Azpeitian jokatutako xake partida azkarren modalitateko Gipuzkoako txapelketan, Klub Deportiboko ordezkariak onenen artean izan ziren. Xabier Beorlegi 4. postuan sailkatu zen, bigarren eta hirugarrenarekin berdinduta (5'5 puntu bildu zituen bakoitzak), eta Diego Olmo seigarren geratu zen. Bertan izandako Eibarko beste lau ordezkariak honela sailkatu ziren: Edu Olabe (13), Jon Arana (17), Aitor Beorlegi (23) eta Unai Etxabuz (41).

Donostian jokatutako Gipuzkoako Eskola Txapelketako finalerako, bestalde, Endika Garcia, Mikel Saenz eta Beñat Zubizarretak hiru punturekin amaitu zuten.



Ipuruako gimnasta guztiek Euskadiko txapelketarako txartela lortu dute

Aurreko astean amateur mailako Gipuzkoako txapelketan parte hartu zuten Ipurua Klubeko gimnasta guztiek Euskadiko txapelketarako txartela lortu zuten, bai banaka bai taldeka. Honakoak izan ziren sailkatuak: seniorretan, Uxue Etxeberria, June Txurruka, Nidia Olasolo, Maria Horcajo eta Malen Perez; jubenetan, Lia Romano, Saioa Rodriguez, Yuma Otálvaro, Gorane Mendibe eta Miren Belar; kadeteetan, Maren Larrañaga, Paula Gonzalez, Arrate Aizpuru eta Eider Moreno; Plus mailan, Maddi Teran; eta Masterrean, Alicia Etxaniz, Irea del Rey eta Maria Cruz. Teran Plus mailan eta Etxaniz Masterrean onenak izan ziren uztaiarekin eta zintarekin, sailkapen orokorra irabazteaz gain. Taldeka ere Ipuruako guztiek egin zuten aurrera: hasi senior mailako biekin, eta kadete B mailako beste birekin eta kadete A mailako bakarrarekin jarraitzeko.

Asteburu honetan Ipuruako albin eta infantil mailetakoko gimnastek Irunen lehiatuko dute, Gipuzkoako Eskola Txapelketan.

SD Eibarko talde nagusienek denboraldia borobiltzeko asmoarekin jarraitzen dute

Zenbait jardunaldiren faltan bai gizonezkoen zein emakumezkoen bigarren taldeek lortutakoari segida emateko itxaropenari eusten diote helduen mailan jokatzeko SD Eibarko taldeek. Vitoria eta Eibar B 3. RFEF mailatik datorren denboraldirako 2. RFEF mailara jauzi egingo duten bezala, 2. Mailako La-Liga Hypermotionen jokatzeko duen gizonezkoen taldea hirugarren dago liga amaitzeko lau jardunaldiren faltan, hiru puntura dituen Valladolid eta Leganesen porroten zain, eta 1. Mailako F Ligan jokatzeko duen emakumezkoenak gero eta emaitza bikainagoak dihardu lortzen, horiek ere lau jardunaldiren faltan eta jaitsierari izkin egiteko gogoz.

Joseba Etxeberriak gidatzen duen taldeari honako partiduak geratzen zaizkio: Levante-Eibar (zapatu honetan, 21:00etan), Eibar-Cartagena (hurrengo domekan, 14:00etan), eta Sporting-Eibar eta Eibar-Oviedo (maiatzaren 26an eta ekainaren 2an, azken bi jardunaldiak izanda, 18:00etatik aurrera). Yerai Martinen gidatzen duenari, bestalde, honakoak geratzen zaizkio Liga amaitzeko: Villarreal-Eibar (gaur, 18:30ean), Eibar-Barcelona (datorren martitzenera aurreratutako neurketa, 18:00etan), eta Granadilla-Eibar eta Eibar-Granada (ekainaren 9an eta 16an, hor ere azken bi jardunaldiak izanda, 18:00etan hasita).



Eibar B - Aretxabaleta etzi 12:30ean Unben

Denboraldi honetan, gainera, Erregionaleko Ohorezko Mailako Eibar Urkok aukera izango du Vitoria 3. RFEF mailan lagatuko tokia betetzeko, aurreko denboraldietan egin bezala Liga bereganatzen badu behintzat. Une honetan sailkapeneko gorenean dago, Aretxabaletarekin berdinduta, eta, hiru jardunaldiren faltan, euren artekoa dute Unben asteburuan. Partidua

domeka eguerdian jokatuko da, 12:30ean hasita. Bi talde horien atzetik Zarautz dago, hiru puntura. Iñigo Perezek gidatzen duen Eibar Urkok martxa bikaina darama, azken sei partiduak irabazita; Aretxabaletak 10 puntu ateratzen zizkion orain dela hilabete batzuk. Azken bi partiduetan, eibartarrek Bergaran jokatuko dute, ondoren Deusto Donostia hartzeko Unben.



BAZKIDE zertarako?

Eibarren euskara sustatzeko makina bat proiektu aurrera eramateko, adibidez:

Berbetan, euskarazko mintzapraktika-programa

Euskara praktikatzeko egitasmoa da, euskaraz berba egiteko ohitura dutenak eta mintzapraktika egin nahi dutenak biltzen dituena.

Zertarako?

Ahozko euskara-maila hobetzeko, lotsak eta konplexuak alde batera lagatzeko, euskara gehiago erabiltzeko, euskaraz bizitzeko, euskal komunitatea trinkotzeko, lagunak egiteko, ondo pasatzeko...

Nola?

Talde txikietan elkartuz, giro lasai eta informalean, astean behin, ordubetez. Parkean, tabernan, terrazan, pasean...

Ekintza osagarriak

Ekintza osagarrietan parte hartzeko aukera: irteerak, tailerrak, ikuskizunak...
...eta hori guztia doan!

Egin zaitetz bazkide!

“Energia berriztagarriak gero eta garrantzitsuagoak dira, planetaren etorkizuna baldintzatuko baitute”

PATXI ALKORTA EGIGUREN • GIE - Eibarko Koordinatzailea (zuzendariordea)



Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolak atala du Eibarren (GIE – Eibar), Hezkuntza Esparruan (Otaola hiribidean). 2011z geroztik energia berriztagarrien gradua eskaintzen du, estatuan lehenengoa, eta aurrean 10. promozioiko ikasleak graduatuko dira. Patxi Alkorta da bertako koordinatzailea eta bertan egiten dituzten jardueren inguruan egin dugu berba berarekin.

Gauza nabarmena da Eibarren unibertsitate ikasketak egiteko aukera izatea eta, horregatik, berebiziko garrantzia du GIE – Eibarrek. Eibar eta inguruko talentua erakartzeaz gain, estatu osotik etortzen diren ikasleak ditugu bertan eta euren eskuetan dute etorkizuna.

Ikasturtea amaitzear dago, baina udan ez zarete geldirik egongo, Egokitu programa eskainiko baituzue. Zertan datza?

UPV/EHU-k udan, Gipuzkoako Campusean, martxan jarritako programa da Egokitu. ‘Euskal gazteen orientaziorako ikastaroa. Talentua unibertsitatean’ da bere goiburua. Horren bitartez, DBH 3. eta 4. mailako eta Batxilergoko 1. mailako ikasleei uztailaren Ietik 5era, astebetez, 09:00etatik 14:00etara, atentzioa ematen dieten unibertsitateko arloak ezagutzeko aukera ematen zaie. Besteak beste, ingeniarietza ezagutzeko aukera dago eta iaiztik Eibarren eskaintzen da programa, ordura arte Donostian bakarrik egin baitzen. Gure kasuan, ingeniarietza eta berriztagarriak modu ludikoan ezagutzen dituzte.

Nolako jarduerak egiten dituzte zehazki?

Jarduerak bi arlotan banatu ditzakegu: esperimenta-

lak eta simulazio edo ordenagailu bidez egiten direnak. Adibidez, matematikaren bidez energia berriztagarriak energia nola sortzen duten ikusi dezakete ordenagailu bitartez, edo olio begetalen hondakinetatik biodieselak nola sortu daitekeen ikusten dute, besteak beste. Ikasleek kontzeptuak ulertzen dituzte, batzuetan esperimental-ki ikusten dituzte, eta neurketak ere egin ditzakete. Ez da formula aplikatzea, baina bai pixka bat intuitiboki aplikatzea, bokazioa sortzea.

Iazko esperientzia nolako izan zen?

Oso polita. Ikasleak gazteak dira eta pixka bat beldurtuta etorri ziren, baina bigarren egunetik aurrera konfiantza hartu zuten eta oso gustora egon ziren. Beraientzat dibertigarria izan zela uste dut. Unibertsitatean hurbildu ziren eta hemen ikusitakoak kuriositatea sortu zuten eurengan.

Zergatik izan daiteke garrantzitsua Egokitu programan parte hartzea?

Unibertsitatea beti egon da hiriburuetan, baina Eibarren, zorionez, 1968tik unibertsitate eskola dugu, ingeniarietza eskola. Transformazio eta izen ezberdinak izan ditu, baina hemen gaude oraindik eta garrantzitsua da hori gizarteari ikusaraztea. Inertziak daude eta joera beti izaten da hiriburura joatea. Zorionez, Gipuzkoako



Esperimentuen bitartez unibertsitateko irakaskuntzetara gerturatzeko aukera ematen du Egokitu programak. EKHI BELAR

Campusak apustua egiten du Eibarren unibertsitatearen irla txiki honi eusteko. Zentzu horretan, garrantzitsua da Eibarko eta eskualdeko jendeak hona modu ludikoan gerturatzeko aukera edukitzea.

Aurten Berriztagarrien graduako 10. promozioiko graduatuak izango dira. 2011z geroztik eskaintzen duzue gradu hori. Nolakoak izan dira urte hauek?

Hasiera pixka bat traumatikoa izan zen. Izan ere, lehen mekanikako eta elektronikako ingeniari teknikoak eskaintzen genituen eta bat-batean, 2009. urtearen inguruan, esan ziguten ezingo zirela hemen ematen jarraitu eta, beraz, titulaziorik gabe geratuko ginela. Horrela, UPV/EHU-k alternatiba bat sortzeko aukera eman zigun eta, azterketa bat egin ondoren, atzeman genuen energia berriztagarriena izan zitekeela etorkizuna. Gaur egun ikusten dugu, 2011n martxan jarri arren, horrek gero eta indar handiagoa duela. Gure graduatuak ondo kokatzen dira lanpostuetan eta batzuek masterrak egiten dituzte. Horrela, enplegu-tasa oso altua da, %94koa.

Talentuaren kontua aipatu duzu lehen. GIE-k Eibarren atala izatea bertako talentua egotea sustatzen du? Eta

“Gure graduatuak ondo kokatzen dira lanpostuetan. Enplegu-tasa oso altua da, %94koa”

ez bertakoa bakarrik, baita kanpotik etorritakoa ere?

Hemengo enpresek, udalek, Debegeesak eta BPTD-k (gu gu bazkideak gara) bertako talentuari eusteko ardura dute. Gaur egun ikasleek aukera asko dituzte, komunikazioak onak dira eta jende asko kanpora joaten da lanera edo ikastera, baina ahal den neurrian bertako talentua bertan geratzea garrantzitsua da. Hori bai, ez dadila derrigorrezko zerbait izan, baizik eta hemen nolako aukera dauden erakutsita. Bestalde, kanpotik talentua erakarri ahal badugu, interesgarria izan daiteke baita ere.

Inguru honetan baldintza egokiak ematen dira talentuari eusteko?

Bai. Debarreneneko industria beti izan da mekatronikoa, hau da, mekatronikari eta elektronikari oso lotua, modu

Elkarrizketaren
BIDEOA

handian oraindik ere, baina azken urteotan enpresa mota ezberdinak hasi dira agertzen eta dezente dira energia berriztagarrien sektorekoak. Horrela, gure ikasle askok hemengo enpresetan egiten dituzte praktikak.

Etorkizuna berriztagarrien bidetik doa?

Energia berriztagarriak geroz eta garrantzitsuagoak dira, planetaren etorkizuna hortik joango dela ikusten dugulako, planetaren etorkizuna baldintzatuko dute. Trantsizio energetikoaren garaian gaude jada, energia ez kutsakorrik bilatu behar dira, eta horietako asko berriztagarriak dira. Erakundeak inbertsioak egiten ari dira horrela izan dadin, eta lanpostu asko sortzen ari dira eta sortuko dira.

Hurrengo ikasturtean Ibilbide Duala egiteko aukera eskainiko duzue, baina zer da zehazki?

Gaur egun, 4. mailako ikasleek enpresetan praktikak egiteko aukera dute bigarren hiruhilabeteetan. Beraz, enpresako praktikan eboluzio natural bezala, ikasleetako askok gradu amaierako lana enpresetan egiten dutenez, 4. mailako lehen eta bigarren hiruhilabeteetan proiektu formatibo bat egiteko aukera ematen zaie Ibilbide Dualaren bitartez, ibilbide jakin bat jarraituz. Horrela, egun batzuetan ikaslea klasera joango litzateke eta beste batzuetan enpresara, proiektu formatibo hori enpresan egin dezan. Orain arteko enpresetako praktikekin alderatuz, honako horretan proiektu zehatzago bat egiten da ebaluazioa egiteko, irakasgai batzuekin lotura duena, eta gero gradu amaierako lana enpresa horretan egingo lukete. Ibilbide Duala orain arteko praktikak baino pack handiagoa eta zehatzagoa da. Gainera, ikasleei lan kontratua egiten zaie, eta enpresa batek ikasle bat Ibil-



bide Duala egiteko hartzen duenean esan dezakegu oso aukera handiak dituela bertan lanean geratzeko. Aurten proba pilotua egin dugu bost ikaslerekin Tekniker ikerketa-zentroan eta datorren ikasturtean, Teknikerrez gain, beste hiru enpresatan jarriko dugu martxan Ibilbide Duala (tartean Mendaroko Masermic enpresan). **Aurten, lehen aldiz, Korrikan hartu duzue parte. Nolanok esperientzia izan da?**

Irakasle asko Eibartik kanpo bizi direnez, orain arte zaila egin zaigu parte-hartzea, baina aurreko edizioan gogotsu agertu ginen. Ezin izan genuen parte hartu eta aurtengoan parte hartzeko konpromisoa hartu genuen. Horrela, Ermutik Hezkuntza Esparrura bidean dagoen azken biribilgunean hartu genuen lekukoa.

Nolakoa da GIE – Eibarren euskararen alde duzuen jarrera?

Unibertsitate Laborala 1968an sortu zen, Francoren sasoian, eta 2000. urte ingurura arte gazteleraz soilik ikasteko aukera zegoen. Ni neu ikasle izan nintzen bertan eta irakasle dihardut urte askoan; beraz, bertako transformazioa ikusi dut. Luzea izan da, baina gaur egun ia dena euskaraz egiten dugu: eguneroko langile eta ikasleen harremanak, eskolako batzar guztiak, eta abar.

EGOKITU UDAKO CAMPUSA

Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola - EIBAR

Ingeniaritza - Energia Berriztagarriak czagutu eta zure eskuekin ikutu nahi badituzu, hau da aukera!!

Uztailak 1-5 (09:00-14:00). Izena emateko epea: maiatzak 24





Gilda Barrenechea Aramburu



2024/05/05
100 urterekin

“Beti izango zaitugu gogoan”

- ETXEKUAK -



Angel “Willi” Villagarcia Cano



2024/05/03

“Erraza izan da zu maitatzea, ezinezkoa ahaztea”

- ZURE LAGUNAK -



Fidel Gonzalez Garcia
2024/05/02

“Harro hadi Kantauri itxasoa ta heien betiko loa betiko kanta zak. Geroari esaiok olatuetan Herri-izarrak ez direla itzaltzen, gure hurrek biharko eien izenak abestu ditzaten,

....

Eibarko Sortu



Leonardo Iriarte Narbaiza
2024/05/02

FUNEUSKADI
Ungai Antea

FUNERARIA MUGICA
Funerariak



24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Eibar: Otaola, 27
Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20
Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leloa · Getxo · Sestao · Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

Elgoibar: Xisillon, 1/n. SIGMA Industrialdea (Otasoko hilerriaren ondoan)
Ermuako bulegoa: Marquis de Valdespina, 18



M^a Isabel Alberdi Zinkunegi



1. URTEURRENA
2023/05/14

“Triste eta minduta laga gintuzun, baina zure irriparra eta maitasuna gurekin gelditu dira”

MAITE ZAITUGU
- ETXEKOAK -



Gema Baqué-ren lehen eleberririk argia ikusi du

Gema Baquék bere lehen eleberria, *Los años robados* izenburuko liburua, aurkeztu du Donostian. Alberdania argitaletxeak kaleratu du eta bertan familia-sekretuen inguruko istorioa kontatzen du idazleak. Eibar da istorioaren abiapuntua: “Mikel Eibarrera itzuliko da, bertako futbol taldea Lehen Mailara igotzeak eskaintzen dion lan aukera batengatik, baina bere benetako motibazioa beste bat da: bera nerabe zela, aita desgertzeko arrazoia zein izan zen jakin nahi du. Izeba Carmenekin batera egiten duen ikerketak Eibar, Lizarra, Iruñea, Deba, Donostia eta Madril lotzen ditu, eta bere familiako kideei sakonki eragingo dien egia deseroso bateraino eramango du protagonista”.



Jose Luis Otamendi arituko da Harixa Emoten-en saioan

Martitzenean izango da Idazlearekin Harixa Emoten irakurle taldearen maiatzeko saioa, 19:00etan Portaleko 1. batzartokian. Jose Luis Otamendi gonbidatu dute, *Landura* bere poesia liburuari buruz berba egiteko. Ainhua Aldazabalek zuzenduko du literatur-solasaldia. Jarduera hori Udal Liburutegiak eta ... eta kitto! Euskara Elkarteak elkarlanean antolatzen dute, euskarazko irakurzaletasuna sustatzeko asmoz.



52. Udako Ikastaroetarako izen-ematea zabalik dago

Aste honetan aurkeztu dituzte UEUren 52. Udako Ikastaroak Aitor Bengoetxea Alkorta UEUko zuzendariak, Irati Iciar Madinabeitia UEUren Udako Ikastaroen arduradunak eta Edurne Koch Elizegi UEUko Nafarroako arduradunak. Azken urteotako martxan, 20 jardunaldi eta topaketa antolatu dituzte, hainbat eragilerekin elkarlanean, “euskaraz gizar-tearentzat garrantzitsuak diren gaien inguruan hausnartzeko helburuarekin”. Iruñea, Baiona eta Eibartik aparte, aurtun Udako Ikastaroak Usurbil, Bilbo, Donostia eta Tolosara ere ailegatuko dira. Ekainaren 6tik uztailearen 10era bitartean izango dira eta, ahalik eta jende gehienak parte har dezan, matrikula guztiek 10 euro balio dute. Izen-ematea zabalik dago www.ueu.eus helbidean, eta bertan ikus daiteke ikastaroei buruzko informazio zehatza.

Musika Bandaren kontzertua Toribio Etxebarria kalean



Domekan eskainiko du Eibarko Musika Bandak kaleko lehen kontzertua, eguraldiak horretarako aukera ematen baldin badu behintzat. Andoni Vazquezek zuzenduko duen emanaldia 12:30ean hasiko da, Toribio Etxebarria kalean (euria egingo balu, udaletxeko arkupeetan joko dute). Egitaraua, berriz, pieza hauek osatzen dute: Manolete (P. Orozco eta J. Ramos), El Caserio (Jesus Guridi), Dantzaldia (Iñaki Urkizu), Gladiator (M. Legnaro) eta La Mascara del Zorro (J. Moss).



Eguaztenean banatuko dira Ipurterre lehiaketako sariak

Aste honetan eman dituzte ezagutzera aurtengo Ipurterre Ipuin Lehiaketako irabazleak: LH1-2 mailan Sofia Lujan (La Salle); LH3-4 mailan Udai Mallagaray (San Andres); LH5-6 mailan Helene Jauregi (J.A. Mogel); DBH 1-2 mailan Eneko Meabebasterretxea (Eibar BHI), eta DBH 3-4 mailan Alaitz Herrera (La Salle). Sari-banaketa eguaztenean egingo da, Coliseon. Goizeko 10:00etan hasiko da eta ordubete iraungo du. Sariak banatzeaz gain, Txoborro magoak ikuskizuna eskainiko du. ...eta kitto!-k eskolekin elkarlanean antolatzen duen lehiaketak 30. edizioa bete du aurten eta Eibarko ikasleek 1.000 lan inguru aurkeztu dituzte.



Argazkilari onenen lanak herriko erakustoki guztietan

Barixakuan zabaldu zituzten Eibarko Klub Deportiboko argazkilaritza taldeak antolatzen duen *Argazkilaritza Maiatzean*-eko erakusketak. Eibarko erakusketa areto guztiak bete dituzte estatu mailako argazkilari onenen lanekin. Horrekin batera, bihar Euskal Herriko Argazkilari Taldeen Elkartearen Kongresua egingo da, Portalean. Eta maiatzaren 18an, *Anatomía de una foto tailerra* eskainiko du Tino Soriano. Parte hartzeko interesa duenak argazkilaritza@deporeibar.com helbidean eman dezake izena, oraindik tokia dago eta.



Euskal Jaia Koloretan irudikatzeko ekimena

Euskal Jairako ekimena antolatu dute Arrate Kultur Elkartek eta Adarabarrek: "Euskal Jaiarekiko harremana jasotzeko sormen lan kolektiboa osatzera goaz. Jendeak aukeratutako bizipen, data eta kolore baten bidez, Pantone itxurako banderatoxak sortu, eta Depor inguruan zintzilikatuko ditugu". Datuak bidaltzeko, Kultur bere Facebook-en eskuragarri ipini duen inprimakia bete daiteke, maiatzaren 19a baino lehen. Eta argazkiak arratekultu@gmail.com helbidera edo 638 284 912 zenbakira (WhatsApp edo Telegram bidez) bidali daitezke. Bestela, maiatzaren 25ean egingo den azokara ere eraman daitezke.

"El acontecimiento" aztertuko dute gaurko zine-forum saioan

Pagatxa emakume elkarteak zine-forum saio berria antolatu du gaurko. Oraingoan, Audrey Diwan zuzendariaren *El acontecimiento* filma proiektatuko dute, eta ondorengo solasaldia Izaskun Rodriguez Elkorok dinamizatuko du. Saioa 18:30ean hasiko da, Portaleko areto nagusian, eta sarrera libre da.

"Rigoletto" opera diferituan



Datorren asteko barixakuan (hilak 17) opera eskainiko dute Coliseon, 19:30ean. Verdiren "Rigoletto" ikusi ahalko da, Madrilgo Errege Antzokian grabatutako saioan. Lan horretan parte hartzen duten ahotsak goi mailakoak eta oso ezagunak dira.

ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

2	6					
7	9			4		
	5	1		6		7
9			8		2	
1	2					8 6
		8	9			7
	3		1		6 5	
			6			4 9
					7	3

1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9

soluzioa


1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9

soluzioa

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

		3	6	1	8	
	8			5		
5		7				4
	1	8				
3		1	4			2
			9	5		
8			7			1
		2			3	
	4	6	1	7		

**S
U
D
O
K
U**



LABIRINTOA ESKI GAINEAN

Maiatzak 10/16

BARIXAKUA 10

ANTZERKIA

10:00 "Eibar School Musical" (Eibar BHI), DBH 1. mailakoentzat.
12:00 DBH2. mailakoentzat. Debabarreneko eskola arteko 39. antzerki erakusketa. Coliseo.

ALTXORRAREN BILA

17:15/19:00 Familien arteko Altxorraren Bila, ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik. Untzagan hasita.

AURKEZPENA

18:30 "Hilekoa(k)" Ainhoa Aldazabal Gallastegi-Skolastikaren erakusketa. Andretxea.

ZINE-FORUMA

18:30 "El acontecimiento" (Audrey Diwan). Dinamizatzailea: Izaskun Rodriguez Elkoro. Sarrera librea. Portalea.

DIA DAS LETRAS

19:00 Galiziako jai-batzordearen txosnaren irekiera. Os Galaicos gaita taldearen kalejira. Haurrentzako pailazoak, Lekim Animaciones-en eskutik (euria egingo balu, Galiziako Etxean).
19:30 Gaita-poteoa, Galiziako Etxeko gaita taldearekin eta Eibarko Trikitilariekin.
22:00/00:00 Musika eta dantzaldia, Compostela orkestrarekin. Queimada.
00:30/01:30 Musika eta dantzaldia, Compostela orkestrarekin. Urkizu.

ZAPATUA 11

TOPAKETAK

09:30/17:30 Dantzan Ikasi Topaketak. Markeskua jauregia.

ARGAZKILARITZA MAIATZEAN

10:00 EHATE Euskal Herriko Argazkilari Taldeen Elkartearen Kongresua. Portalea.

AZOKA

10:00/14:30 Bidezko Merkataritzaren Munduko Egunaren Azoka. Untzaga.

DIA DAS LETRAS

11:30 "Chaves" jautiketa mistoa, 8-12 urtekoentzat.
12:00 Herri-kirolak: aizkolariak eta harrijasotzaileak.
13:00 Igel-toka txapelketa, haurrentzat.
13:30 Igel-toka txapelketa, helduentzat (izen-ematea: euro bat).
16:00 "Chaves" jautiketa mistoa, helduentzat, sari ugarirekin (izen-ematea: bi euro).
18:30 Galiziako dantzak eta musika, Os Galaicos taldearen eskutik.
22:30/00:30 Musika eta dantzaldia, Stero orkestrarekin.
00:30 Queimada.
01:00/02:00 Musika eta dantzaldia, Stero orkestrarekin. Urkizu.

MUSIKA

22:30 Bewis de la Rosa: "Amor más que nunca". Untzaga.

DOMEKA 12

DIA DAS LETRAS

12:00 Musika eta dantza erakustaldia.
14:00 Lore-eskaintza Castelaoren oroitarrian.
15:00 Luntxa.
16:30/18:30 Mahai-jokoak, Odisea elkartearen eskutik.
18:00/22:00 DJ Primo Bayo.
22:00 Jaien amaiera. Urkizu.

MUSIKA

12:30 Eibarko Musika Bandaren kontzertua. T. Etxebarria kalea (euria egingo balu, udaletxeko arkupeetan).

ASTELEHENA 13

ANTZERKIA

15:00 "Mamut" (Markeliñe). LH-ko 2., 3. eta 4. mailakoentzat. Debabarreneko eskola arteko 39. antzerki erakusketa. Coliseo.

MARTITZENA 14

BERRIKETAN IKASI

10:30/12:00 Tertulia: "Inbidia zorionaren etsaia al da?". Sarrera librea. Portalea (ikastaro gela).

BERTSOLARITZA

18:00 Umeen Bertso Jaialdia. 3 euro. Coliseo.

LITERATURA

19:00 Idazlearekin Harixa Emoten: Jose Luis Otamendiren "Landura". Portalea (1. Batzartokia).

EGUAZTENA 15

IPURTERRE

10:00 Ipurterre ipuin lehiaketako sari-banaketa eta Txoborro magoaren ikuskizuna. Coliseo.

SAN ISIDRO

11:00 Meza, bertsolari eta trikitilariekin. Prozesioa eta aureskua, Kezka dantza taldearen eskutik. Debabarreneko produktuen dastaketa.
12:30 Aizkolari txapelketa eta harrijasotzaileen saioa.
14:30 Bazkaria. Ondoren, bertsolari eta trikitilariak.
17:30 Idi-demak. Arrate.

BERTSOLARITZA

18:00 Umeen Bertso Jaialdia. 3 euro. Coliseo.

MANIFESTAZIOA

19:00 Palestinar herriaren askatasunaren alde (Nakbaren urteurrena). Deba Bailarako Kontseilu Sozialistak deituta. Untzaga.

EGUENA 16

HITZALDIA

10:00/12:00 "Sasiolaren beste historia". Hizlaria: Alex Turrillas. Amalur aldizkariaren zuzendari ohia. Historia, etnografia eta haur literaturari buruzko artikugilea. Sarrera librea. Armeria Eskola.

BERTSOLARITZA

18:00 Umeen Bertso Jaialdia. 3 euro. Coliseo.

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **11n:** 19:45, 22:30
- **12an:** 20:00
- **13an:** 19:30

“Ooh La La!”
KOMEDIA




2024/Frantzia/91'
Zuzendaria: Julien Hervé
Aktoreak: Christian Clavier, Didier Bourdon, Sylvie Testud
Familien artekoa/ADN

2 ARETOA

- **11n:** 17:00, 19:45, 22:30
- **12an:** 17:00, 20:00
- **13an:** 19:30

“Nina”
DRAMA



2024/Espainia/105'
Zuzendaria: Andrea Jaurrieta
Aktoreak: Patricia Lopez Arnaiz, Dario Grandinetti, Aina Picarolo
Mendekua/Sexu-abusuak

ANTZOKIA

- **11n:** 17:00 (1), 19:45, 22:30
- **12an:** 17:00 (1 Aretoa), 20:00
- **13an:** 19:30

“Immaculate”
BELDURREZKOIA




2024/AEB/89'
Zuzendaria: Michael Mohan
Aktoreak: Sydney Sweeney, Alvaro Morte, Simona Tabasco
Terrorea/Erlijioa

ANTZOKIA

- **11n:** 17:00
- **12an:** 17:00

“Emma y el jaguar negro”
ABENTURA



2023/Frantzia/100'
Zuzendaria: Gilles de Maistre
Aktoreak: Lumi Pollack, Wayne Charles Baker, Paul Greene
Animaliak/Familian ikustekoa

elgoibar ikastola

HHO-1 MATRIKULA

2023-2024 urtean jaiotakoak
Egutegi eta ordutegi zabalak
Bisita pertsonalizatuak - 943 744 441

943 20 67 76

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **LUCIA!!!**
Gure printzesak eguaztenian 8 urte beteko ditte-eta! Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, **MALEN!!!**
Hillaren 3an 8 urte bete zenduazena-eta! Patxo haundi bat famelixa guztiaren partez!



Zorionak, **JULEN,**
gure bihotza! Gaur 2 urtetxo betetzen dozuz-eta. Jarraitu halako maitekorra izaten! Patxo potolo bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **NILLE!**
Hillaren 15ian gure printzesak 6 urte egingo dittualako! Patxo haundi bat famelixa guztiaren partez!



Zorionak, **REINA!!!** Pilla bat disfratau zure egunaz astelehenian. Pilla bat maite zaittugu. Izan señora. Urrunbezaingertu. Pox. Nur.



Zorionak, **JON!!!**
Astelehenian 6 urte beteko dozuz-eta. Patxo haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **EÑAUT,**
mutil haundi!!!
13 patxo potolo eta egun politta pasau bixar.



Zorionak, **MALEN,**
7 urte mando egin zenduazena eguenien, maiatzaren 9xan. Maite zaittugu. Aita, Aiuri eta ama.



Zorionak, **JULEN!!**
Bixar 8 urte egingo dozuz-eta. Patxo haundi bat, txapeldun! Etxekuen partez.

• **tartak**
• **enkarguak**
etxera

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

LORADENDA
San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

LORA ETA LANDARE
NATURAL ETA
LEHORRAK
EZKONTZETARAKO
LORAK
ZENTROAK
ERRAMUAK
Enkarguak etxera

Iragarki laburrak



943 20 67 76
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

- Eibarko erdialdean etxebizitza salgai. 3 logela, egongela, sukaldea (denak kanpora), balkoia eta 2 komun. Eguzkitsua eta oso egoera onean. 616489540.

1.2. Errentan

- Deban etxebizitza alokagai abuzturako. 3 logela. Garajea eta terraza itsasora bistarekin. 605728340.
- Senar-emazte arduratsuek etxea hartuko lukete alokairuan. 667060292.

- Pisia alokagai Eibarko erdigunean. 2 logela. Igogailuarekin. Garajea aukeran etxepean. 631419458.
- Apartamentu edo pisu txikia alokatuko nuke Eibarren. 688666220.

3. LOKALAK

3.1. Salgai

- Lokal industrialak salgai. 667895597.

3.2. Errentan

- Garajea edo parzela alokatuko nuke Ipurua zonaldean edo hortik gertu. 628933542.
- Lokala alokagai I. Ojanguen 1ean. 40 m2. Komunarekin. Aproposa bulegorako, almanzenerako, e.a. Prezio onean. 676556691. Vicente.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 674730806.
- Emakumea eskaintzen da etxeak, pegorak, tabernak... garbitzeko. 688758630.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita asteburuerean ere. Orduka. 643933039.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 680808125.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko, nagusiak zaintzeko eta manikura egiteko. 61321786. Alejandra.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (baita ospitalean ere) eta etxeako garbiketarako egiteko. Orduka. 667060292.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez

edo asteburuerean ere. Esperientzia. 641756213. Mari Jose.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 611215176.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko (baita gauzez ere). 612202116.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko arratsaldetako gauzez. Esperientzia. 655094780.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko aratsaldetako gauzez. Esperientzia. 642578943.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 658657807.

4.2. Langile bila

- Hortz-higienista behar da hortz-klinika batean (lanean berehala hasteko). Bidali curriculum-a: hortzklina.06@gmail.com
- Estetizista behar da Eibarko zentro batean. Manikura, pedikura eta depilazioan espezializatua. 603344258.
- Kamarera/o behar da Eibarko taberna batean. Asteburu-rako edo jornada erdirako. 661955980.
- Pertsona behar da uztailean goizetik haurrak zaindu eta etxeako lanak egiteko. Euskaraz jakitea baloratuko da. 670461346.
- Ermuko Aiera Estilistak ileapaintzailea behar du. Esperientzia eta lanerako gogoarekin. 626524949. Bidali curriculum-a: ayerravg@gmail.com
- Ermuko hortz-klinika baterako auxiliarrak edo administratibak behar da uztailearen amaiera arte (baja bat kubritzeko). Goizez. niklinika@gmail.com

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- Bigarren eskuko ohe artikulatua erosiko genuke. 617271240.
- Monitorea salgai. Kalitate onekoa eta ia berria (Monitor gaming- HP 25x, 24.5", Full HD, 144 Hz, 1 ms). Prezioa: 100 euro. 649105442. Elena.

6.4. Bestelakoak

- Domeka eguerdian, apirilaren 28an, Elgetako "Bolatoki" parkean 9 urteko neskatila baten beroki urdin argia laga genuen ahaztuta. Aurkitu baduzu, deitu mesedez. 615767048.

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA, 400P. E.

Go! Mailako Heziketa Zikloak

- | Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- | Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- | Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- | Mekatronika Industrialia
- | Automatizazio eta Robotika Industrialia

Espezializazio Ikastaroa

- | Industria Mantentzearen Digitalizazioa
- | Eragiketa - Teknologikoen inguruneetan zibersegurtasuna

mondragon.edu/lanbideheziketa

Oñati gestio heziketa

Go! Mailako Heziketa Zikloak

- | Salmenten Kudeaketa
- | Administrazioa eta Finantzak

#LanerakoGertu

IZEN-EMATEA

Maiatzak
6tik 24ra



MGEP: 664298683//664298704

OÑATI GESTIO HEZIKETA: 943718009



etakitto.eus
informazioa esku-eskura

*herriko aktualitatea
elkartearen jarduerak
bideoak
argazkiak
zorion-agurrak...*



etakitto!
EUSKALDUNEN ELKARTEA

zarelakogara

10eko maiatza 10 Egun Kiarekin.

Maiatzaren 9tik 20ra.



Movement that inspires

Hilean
105 €tik aurrera*
Sarrera: 8.079 €
Azken kuota: 10.480,25 €

10 Egun Kiak eskainiko dizu Stonic moduko diseinu ausarteko autoa, Kia XCeed bezalako crossover baten erabilgarritasun perfektua, edo Kia Sportage-ren diseinu teknologiko trinkoa eskuratzeko aukera. Horrez gainera, maiatza da gure hibridoan, hibrido entxufagarrien eta % 100 elektrikoan aukera zabala ezagutzeko unerik onena.

KIA
NAIA CAR

Apalategi, 1 EIBAR
943 70 70 33
gruponaiacar.com

CO2 isuri konbinatuak WLTP (g/km): 119-162. WLTP kontsumo konbinatua (l/100 km): 4,9-7,4. Eskaintza honek Penintsulako, Balearretako, Ceutako, Melillako eta Andorako Kia konbentzionarion sarran balio du* Kia Stonic 1.0 T-GDI MHEV 100CV Concept MY25-entzat finantzaketaren adibidea. **PSP: 20.935,50 €.** **Finantzatutako prezioa: 19.024,10€.** **Sarrera: 8.079€.** **Finantzatutako zenbatekoa: 11.862,11€** (ordainketak babesteko aukerako aseguruak barne: 466,26€ eta % 1,95eko formalizazio-komisioa: 450,75 €). **105 €-ko 47 kuota eta 10.480,25 €-ko azken kuota.** **TIN: % 7,95eko UTBa: % 9,55.** **UTBaren kalkuluan finantzaketaren kostu gisa sartzen ez den aseguruak.** **Interesak gutxira: 3.553,14€.** **Kredituaren kostua, gutxira: 4.003,89€.** **Zordundutako zenbatekoa gutxira: 15.415,25€.** **Prezio osoa epeka: 23.494,25€.** Amortizazio-sistema frantsesa. Banco Cetelem SALirekin finantzatu. 2024/05/09tik 2024/05/20ra. Ordainketak babesteko aseguruak barne hartzen du. Honeko estaldura hauetara: heriotza, eztabaun iraunkor absolutua, soldatapekoentzako langabezia, autorromoentzako jarduera eteha eta ibilgailuaren galera osoa, Cardiff Assurance Vie eta Cardiff Assurances Risques Divers aseguru-etxeekin kontratatuak. Espainiako sukurtulak, E-129 eta E-130 gakoarekin erregistratuak DGSFPren Erregistroan, hurrenez hurren, Banco Cetelem SALren bitartekantzearekin (Banka Aseguruaren Operadore Elkartua, Aseguru Bitartekaren Erregistro Berezian inonbatua, OIV-0046 gakoarekin). Erantzukizun Zibil Profesionaleko aseguruak du, eta finantza-gaitasunaren beretikuna betetzen du. Estalduren aplikazioak polizaren baldintza orokorren eta partikularren mende daude. Kontsultatu www.cetelem.es/seguros helbidean Cetelemek zehin aseguru-etxeekin sinatu duen agertza-kontratua.

